


Goi Mailako  
Lanbide  
Heziketa

Osasuna

# Diagnosi-irudiko eta medikuntza nuklearreko goi mailako teknikaria



Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra



Fondo Social Europeo  
Europako Gizarte Funtsa

El FSE invierte en tu futuro  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNIÓN EUROPEA  
EUROPAR BATASUNA

# Diagnosi-irudiko eta medikuntza nuklearreko goi mailako teknikaria

## Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

### Diagnosi-irudia

- Erradiodiagnostikoko eta/edo medikuntza nuklearreko unitate bateko laneko arlo teknikoa kudeatzea.
- Pazientea prestatzea, irudiak lortzeko, ezaugarri anatomofisiologiko eta patologikoen arabera eta aginduari jarraikiz.
- Irudi medikoak lortzea erradiografia soileko ekipoak, kontrasteaz lagundutako erradiografia-ekipoak eta erradiologia interbentzionistako ekipoak erabiliz.
- Irudi medikoak lortzea ordenagailu bidezko tomografiako ekipoak (OTA) erabiliz eta miaketa ekografikoetan (EKO) laguntzea.
- Irudi medikoak lortzea erresonantzia magnetikoko ekipoak (EM) erabiliz.
- Irudi medikoak eta azterlan funtzionalak lortzea, medikuntza nuklearreko ekipoak erabiliz: gammagrafia soila, fotoi bakarra emititzen duen tomografia (SPECT eta SPECT TAC).
- Giza gorputzaren irudi metabolikoko/molekularreko erregistroak lortzea, positroi-igorpenezko detektagailuak erabiliz (PET eta PET TAC).

- Tratamendu erradiometabolikoak ezartzen eta medikuntza nuklearreko erradioimmunoanalisien bidezko emaitzen lorpenean laguntzea.
- Erradiobabeseko arauak aplikatzea erradiodiagnostikoko eta medikuntza nuklearreko unitateetan.

### *Osatugabeko lanbide kualifikazioa*

### Erradioterapia

- Erradioterapia unitate bat kudeatzea.
- Erradiazio ionizagarriak erabiltzea eritasunen ezaugarri anatomikoen eta fisiopatologikoen arabera.
- Pazienteari laguntza ematea erradioterapia unitatean dagoen bitartean.
- Ospitaleko babes erradiologikoko prozedurak egitea, fakultatibo batek gainbegiraturik



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

[www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional](http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional)

## KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

---

Zure lanbidean osasun sektore publiko eta pribatuan arituko zara, erradiodiagnostikoko eta medikuntza nuklearreko unitateetan, ikerketa-zentroetan eta auzitegiko institutu anatomikoetan edo lege-medikuntzakoetan, baita albaitaritzazentroetan eta animalia-esperimentazioko zentroetan, eta elektromedikuntzako aplikazioetako ospitaleko produktu, farmazia-produktu eta produktu teknikoek merkataritza-ordezkaritzetan ere.

Hauek dira arloko zeregin eta lanpostu garrantzitsuenak:

- Diagnosi-irudiko goi mailako teknikaria.
- Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista.
- Medikuntza nuklearreko teknikari espezialista.
- Erradioelektrologia medikoko tresneriako langile teknikoak.
- Erradiologia-babeseko langile teknikoak.
- Ikerketako eta esperimentazioko erradiologiako langile teknikoak.
- Ospitale- eta farmazia-produktuen merkataritza-ordezkaria.

## ZIKLOAREN MODULUAK

---

- Pazientearen arreta.
- Oinarri fisikoak eta ekipoak.
- Irudi bidezko anatomia.
- Babes erradiologikoa.
- Erradiologia sinpleko teknikak.
- Erradiologia bereziko teknikak.
- Ingelesa I.
- Ordenagailu bidezko tomografia- eta ekografia-teknikak.
- Erresonantzia magnetiko bidezko irudi-teknikak.
- Medikuntza nuklearreko irudi-teknikak.
- Erradiofarmaziako teknikak.
- Diagnosi-irudiko eta medikuntza nuklearreko proiektua.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Enpresa eta ekimena.
- Lantokiko prestakuntza.